

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

## Uliako krimena

Itsasoaren mendi, paradisua da Ulia. Oihan tropikal gozoa. Donostia batean harrigarria. Garai batean tranbiaz igotzen ziren bertara. Perla egokitu zaio ordea Uliari aldamenean, eta bere distira apaldu. Bertan bizitzera baino perlari begira urtzera etorria da bateren bat Uliara. Eta besaulkian, azkazaletako esmaltea erabat lehortu gabe, zigarro-puruari tiraka, ur gaineko bitsetan dela, ezin perla bere osotasunean ikusi. Bidez beheko aldeko platanu petral hori parez pare (*Platanus x hispanica*). Iaz zauri galanta egin zioten, motozerra eta guzti, baina platanuak egoskor, gogor eutsi. Aurtengo erasoan aizkora eta daratua erabili dituzte. Uliako krimena, gorri berritua.

# 15

Ezagutzen den zuhaitz txikiena gehienez ere hamabost zentimetro baino luzatzen da. Bi zentimetrotan gelditzen denik ere bada. Sahats eta zumeen koadrilakoa da, *Salix reticulata*.



## Piztu

PIZTU. Piztu egiten dute landare batzuen esentzia lurrinek. Matrailak gorritzerainoko oxigenazioa eragiten du, *Vetiveria zizanioides*, vetiver esentzia duten lurrinek. Horixe piztea! *Parfum* mitikoren baten lau ttantak erretreta hurrekoen lepoa tentetu eta kokotsa luzatzen ikusi besterik ez. Piztu, eta nola gainera! *Convalaria majalis*, mugetaren esentziak maitasuna tentetu eta luzatzen du, piztu.

Tente demonio azalduko zuen mototsa Hatshepsut Egiptoko erreginak ere, Tebasen, faraoi izendatu eta haien adierazgarri nagusietakoa, bizarra, jantzi zuenean. Emakume faraoi urrietako honek K.a. XV. mendean agindu zuen. Bere sona handitzeko Punt erreinura espedizioa antolatu zuen. Erreinu hura egungo Somalia, Eritrea, Djibuti eta Etiopiaren artean zela uste da. Bertatik, tximino eta morroi nano preziatuekin batera, espeziak eta lurringaiak ekarri zituen. Baita gaiok sortzen zituzten zuhaitzak ere. Haren hilobi arranditsua

behar zuenaren hormetako marrazkietan, ontzi berezien altzoan zetozen intsentsu zuhaitzez bizkarra mukuru daraman txalupatzarra ageri da. Hilobiko lorategietan landatu zituen, intsentsu mitikoa sortzen zuten eta ordura arte ezagutzen ez ziren zuhaitzok (*Boswellia sacra*). Itxura guztien arabera, horrek indar handiagoa eman zion faraoiari, piztu, eta intsentsuz egindako lurrinak itotzen zuen bere ingurua. Hori baieztatzeko bidean dira Bonngo Unibertsitatean. Hango museo batean dute hilobitik lapurtutako lurrinpotoa eta bertako arrastoak ikeritzeari ekin diote. Intsentsua da esentzia nagusia, baina erretenerako beste zein esentzia zuen gustuko jakin nahi.



Hatshepsut faraoiaren estatua.

Milaka urte geroago, Gaza hiria inbaditu zuenean, Alexandro Handiak harrapatutako altxorren artean 500 talentu intsentsu aipatu zituen. Egungo baloreetara ekarri, intsentsu soiletan 180 milioi euroko balorea atzeman zuen. Ez dakit paparrean intsentsua eramatea gustuko zuen, baina ospil hark adore eta kemen galanta erantsiko zizkion bere gogoari. A zer piztualdia!



Landareei buruzko galderaren bat egin nahi badiguzu, bidali [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.